

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure enpresa ezagutzera emateko, eta gure zerbitzuak eskuragarri egon ahal izateko, zeharkako kanalak eta kanal zuzenak erabiliko ditugu. Zeharkako kanalak, dendak (propioak zein elkartuak) eta denda horiek handizka hornitzen dituzten handizkariak dira. Eta kanal zuzenak aldiz, bitartekaririk izatea saihesten duten kanalak dira. Adibidez, saltzaile lantalde batek osatutako salmenta-maila edo Internet bidez saltzeko on line denda.

Gure enpresa internet bitartez jarriko da harremanetan bezeroekin. Horretarako webgune bat eta aplikazio bat sortuko dugu, eta hotelak alokatzeko webguneekin harremanetan jarriko gara. Horrela jende gehiagok gure zerbitzuak alokatuko ditu, bezero gehiago lortuz, hau hurrengo atalean, hau da, bezeroekiko harremanak atalean hobeto azalduko dugu. Beraz, bi kanal mota erabiliko ditugu: zeharkakoak eta zuzenak.



Zuzenak, webgunea eta aplikazioa, play storen eskuragarri egongo dena, izan ere, denda fisikorik ez dugu edukiko. Zeharkako kanalak berriz, gureak ez diren webguneak dira, hauen bitartez jende gehiagori iristeko aukera izango dugu. Webgune hauen adibide batzuk Tripadvisor, Booking eta Trivago dira.

Gure zerbitzuak nahita nahiez internetik alokatu beharko dira, izan ere, QR kode bat beharko da kabinak irekitzeko. Lehen aipatu dugun bezala, aplikazio edo webguneen bitartez eskuratu daiteke QR kodea, beraz ezinbestekoa da interneta gure kabinak

alokatzeko. Gure ustez, ez da arazorik egongo kabinak alokatzeko unean, gure bezeroen adin tartea 18-65 urtekoa baita eta adin horretako jendeak interneta egunero erabiltzen du.

Gure enpresa publizitatearen bidez emango dugu ezagutzera, beraz, jendeak pertzepzioa telebistetako programetan, Spotifyeko iragarkietan edo aireportuan propaganda bidez sumatuko dute. Iragarki hauetan, gure enpresaren baliozko proposamenak agerian utziko ditugu, hau da, kabina alokatzearen prezioa azalduko dugu, European aitzindaria dela esplikatu diegu bezeroei eta etorkizunerako ditugun proiektuak zeintzuk diren adieraziko



ditugu, horrela gure zerbitzua zertan oinarrituta dagoen ikusiko dute. Gainera gure zerbitzuak ebaluatu ahalko dute play storen bidez eta zeharkako webguneen bidez, bertan iruzkinak jarritz, hau gure balio proposamena hobetzeko, baita bezero gehiago erakartzeko balioko digu. Webguneetan eta aplikazioan gure zerbitzuak erosteko atal bat egongo da, bertan, PayPal edo

kreditu txartel bidez ordaintzeko aukera izango dute. Ordainketa ondoren, QR kode bat agertuko da, hau deskargatu egin beharko dute, QR kode honi esker kabinetara sartu ahal izango dute. Azkenik, bezeroek edozein arazo edukiko balute, gurekin kontaktuan jartzeko telefono bat eskuragarri izango lukete kabinetan, aplikazioan eta webgunean. Telefono hau 24 orduz egongo da erabilgarri, horrela edozein momentutan bezeroen arazoak konpondu ahal izateko.

Laburbilduz, kanal mota ezberdinak erabiliko ditugu, bezeroengana ahalik eta hoberen eta gehienetan iristeko, bai gure enpresa ezagutzera emateko eta bai gure zerbitzuak eskaintzeko, bezeroentzat eskuragarri egoteko. Lehen aipatu dugun bezala, gure aplikazioa deskargatzea oso erraza izango da, izan ere, play storen deskargatuko da, horrek bezero gehiago erakarriko dituela uste dugu.